Nola erakarriko dituzue bezero berriak, mantendu eta hazi?

Bezero berriak erakartzeko publizitateak lagunduko digu. Hau da, hainbat komunikabideren bidez ezagutaraziko dugu geure burua, dela irratian, telebistako iragarkiekin, gure enpresaren profil bat sortuko dugu hainbat sare sozialetan, hala nola Instagramen, Facebooken. Horretaz gain, herrialdeko kalerik bisitatuenetan publizitate-panelak jartzeaz arduratzen gara.

Bezeroak mantentzeari dagokionez, ideia ezberdinak bururatzen zaizkigun heinean berritzen saiatuko gara; izan ere, berritasunaren ondorioz, bezeroak mantendu egiten ditugu, monotonoa izan ez dadin. Aldaketa horiek bere gustukoak ez badira, berriz egingo dugu, hasieran bezala.

Azkenik, gure bezeroak hazteko eta gero eta bezero gehiago etortzen saiatzeko, gero eta gehiago laguntzen saiatuko gara, eta zenbat eta denbora gehiago eman gure agentzian, orduan eta konfiantza handiagoa izango dugu haiekin, eta alderantziz. Ahal dugun guztian laguntzen saiatuko gara, haiek gurekin egon daitezen.